# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-271

AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 13koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, 1997ko ekainaren 27ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Batxilergoaren ezarpen orokorra arautzen duena, aldatu egiten da.

97/1997 Dekretua (apirilaren 29koa, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraibideak arautzen dituena) bigarren aldiz aldatzen duen azaroaren 30eko 423/1999 Dekretuak xedatzen duenarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetan Batxilergoaren ezarpen orokorra arautzen duen 1997ko ekainaren 27ko Aginduan aldaketa batzuk egin behar dira, batez ere, ikasleak lehen mailan hautatutako modalitatea aldatu ahal izatea ziurtatzeko eta, halaber, aipatutako dekretuak eskola-orduen kopuruan eta aparteko deialdia aurreratzean ondorioak dituelako.

Horren indarrez, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* 2.3 artikulua honela idatzi behar da:

Helduen irakaskuntzarako arauetan ezartzen denari kalterik eragin gabe, eskolak, orokorrean, lanaldi jarraituan edo etenean emango dira.

*2. artikulua.–* 7.2 artikulua honela idatzi behar da:

Ezin izango dira matrikulatu Geologian edo Giza Fisiologia eta Anatomian lehen kurtsoko Biologia eta Geologia gainditu gabe badute edo bi kurtsoetan aldi berean matrikulatuta ez badaude; ezin izango dira matrikulatu Ordenadorez Lagundutako Marrazketa eta Diseinuan edo Errepresentazio Sistemetan lehen kurtsoko Marrazketa Teknikoa gainditu gabe badute edo bietan aldi berean matrikulatuta ez badaude; ezin izango dira matrikulatu Sistema Automatikoetan Industria Teknologia I jakintzagaia gainditu gabe badute edo bietan aldi berean matrikulatuta ez badaude; ez eta Arteetarako Informatikan ere, Adierazpen Grafiko eta Plastikoaren Teknikak gainditu gabe badute edo aldi berean jakintzagai horretan ere matrikulatuta ez badaude.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-271

ORDEN de 13 de enero de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, que modifica la Orden de 27 de junio de 1997, que regula la implantación generalizada del Bachillerato en los Centros Docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con el Decreto 423/1999, de 30 de noviembre, de segunda modificación del Decreto 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del Bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y se dispone su implantación, deben realizarse algunos cambios en la Orden de 27 de junio de 1997 que regula la implantación generalizada del Bachillerato en los Centros Docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, fundamentalmente para asegurar la reversibilidad de la opción de modalidad del Bachillerato elegida por el alumno en el primer curso y por las consecuencias en la duración de la jornada y en el adelanto de la convocatoria extraordinaria, introducidas por dicho Decreto.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* El artículo 2.3 queda redactado de la siguiente forma:

Sin perjuicio de lo que reglamentariamente se establezca para la enseñanza de personas adultas, las clases se impartirán, con carácter general, en jornada continua o partida.

*Artículo 2.–* El artículo 7.2 queda redactado de la siguiente forma:

No podrán matricularse en Geología o Fisiología y Anatomía Humana, sin haber superado o sin matricularse simultáneamente en Biología y Geología de primero; y no podrán matricularse en Dibujo y Diseño asistido por ordenador o Sistemas de Representación sin haber superado o sin matricularse simultáneamente en Dibujo Técnico de primero; ni en Sistemas Automáticos, sin haber superado o sin matricularse simultáneamente en Tecnología Industrial I; ni en Informática para las Artes, sin haber superado o sin matricularse simultáneamente en Técnicas de Expresión Gráfico Plástica.

*3. artikulua.–* 8. artikulua honela idatzi behar da:

Ez eskolatze-araubide arruntean, ez eta helduen eskolatzeari, urrutiko eskolatzeari edo eskolatu gabeko ikasketei dagozkien berariazko araubideetan ere, ikasleek ezingo dute aldi berean 40 ordu baino gehiagoko ordutegia osatzen duten jakintzagaietan matrikulatuta egon; lehen kurtsoetan gainditzear izan ditzaketen jakintzagaiak ere barne sartzen dira.

*4. artikulua.–* 10.2 artikulua honela idatzi behar da:

Dituzten baliabideen arabera eta taldeen antolamenduak ahalbidetzen badu, ikastetxeek, bigarren kurtsoan, nahi duten ikasleak ikastetxeak eskaintzen duen beste bi jakintzagai gehigarritan matrikulatzea eta ebaluatuak izatea ahalbidetuko du. Horretarako arrazoia izan daiteke jakintzagai horiek ikasleei modalitatez aldatzea erraztea, Goi-mailako Heziketa Zikloren batean sartzeko meritu gisa baloratua izatea edo, Unibertsitatera sartzeko probetan, jakintzagai horiek karrera jakin batzuetan sartzeko eskatzea.

*5. artikulua.–* 11.1 artikulua honela idatzi behar da:

Utzi duten modalitateari dagozkion lehen kurtsoko jakintzagai guztiak gaindituta izanik, beren modalitate-aukera aldatzen duten ikasleek bigarren kurtsoan aukerako gisa ikasi ahal izango dituzte lehenengo kurtsoan ikasi ez duten modalitateko jakintzagai bat; horrez gain, modalitateko beste bi jakintzagai ere ikasi ahal izango dituzte jakintzagai gehigarri gisa.

*6. artikulua.–* 11.2 artikulua honela idatzi behar da:

Utzi duten modalitateko lehen kurtsoan jadanik modalitate berriko jakintzagai bat ikasi badu, nahikoa izango da bigarren kurtsoan jakintzagai gehigarri bat ikastea.

*7. artikulua.–* 12.3 artikulua honela idatzi behar da:

Modalitate-aldaketaren emaitza ez da inolaz ere Batxilergo-titulua lortzea izango, Batxilergoko jakintzagai komun guztiez gain, modalitateko sei jakintzagai eta aukerako bi gainditu gabe, apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak Musikako edo Dantzako Irakaskuntza Arautuetako Erdiko maila gaindituta duten ikasleentzako ezartzen dituen kasuetan salbu.

*8. artikulua.–* 17.1 artikulua honela idatzi behar da:

Ikastetxeek hautazko jakintzagaien behar adinako eskaintza egingo dute, aurreikusitako prestakuntza-ibilbideen arabera.

*Artículo 3.–* El artículo 8 queda redactado de la forma siguiente:

En ningún caso, ni en el régimen normal de escolarización, ni en los regímenes específicos para personas adultas, a distancia o no, escolarizado, los alumnos podrán estar matriculados simultáneamente en materias cuyo horario semanal acumulado sea superior a 40 horas incluyendo en su caso, las materias eventualmente pendientes de primer curso.

*Artículo 4.–* El artículo 10.2 queda redactado de la siguiente forma:

De acuerdo con los recursos de que dispongan, y siempre que la organización de grupos no lo impida, los centros podrán permitir en segundo curso que los alumnos que lo deseen se matriculen y sean evaluados adicionalmente de dos materias de las que imparte el centro que les puedan facilitar el cambio de modalidad, que sean valoradas como mérito para acceder a algún Ciclo Formativo de Grado Superior o que, en las pruebas de acceso a la Universidad, se exijan para el acceso determinadas carreras.

*Artículo 5.–* El artículo 11.1 queda redactado de la siguiente manera:

Los alumnos que modifiquen su opción de modalidad, habiendo superado todas las materias del primer curso correspondientes a la modalidad abandonada, podrán cursar en segundo curso como optativa una materia de modalidad no cursada en primero y otras dos materias de modalidad como materias adicionales.

*Artículo 6.–* El artículo 11.2 queda redactado de la siguiente manera:

En el supuesto de que en el primer curso de la modalidad abandonada, ya haya superado una materia de la nueva modalidad, bastará con cursar en segundo una materia adicional.

*Artículo 7.–* El artículo 12.3 queda redactado de la siguiente manera:

En ningún caso el cambio de modalidad podrá tener como resultado la obtención del título de Bachiller sin haber superado, además de todas las materias comunes del Bachillerato, seis materias en calidad de materias de modalidad y dos en calidad de optativas, salvo lo previsto por la disposición adicional 3.ª del Decreto 97/1997 de 29 de abril para los alumnos que hayan superado el Grado Medio de las Enseñanzas Regladas de Música o de Danza.

*Artículo 8.–* El artículo 17.1, queda redactado de la siguiente manera:

Los Centros realizarán una oferta suficiente de materias optativas en función de los itinerarios formativos previstos.

*9. artikulua.–* 24.4 artikulua honela idatzi behar da:

Jakintzagairen batean balorazio positiborik lortu ez duten ikasleek aparteko deialdi baterako eskubidea izango dute. Deialdi hori ekainean egingo da, ikasturteko azken ebaluazioa egin eta, gutxienez, hogei egun natural beranduago.

*10. artikulua.–* 26.3 artikuluaren lehen paragrafoa honela idatzi behar da:

Batxiler-titulua eskuratu ondoren kalifikazio-liburuaren bidez ebaluazioaren emaitzak jakinarazteaz gain, irakastaldia amaitzean eta hala badagokio aparteko deialdiaren ondoren, ikasleei edo beren lege-ordezkariei banan banako ebaluazio-txosten bat emango zaie. Txosten horrek formatu librea izango du eta, gutxienez, ondoko alderdiak jasoko ditu espreski:

– Batxilergoaren eta ikasitako jakintzagaien helburuen lorpen-mailari buruzko irizpena.

– Jakintzagai desberdinen edukien asimilazio-mailari buruzko irizpena.

– Ikaskuntzaren kalifikazio partzialak edo balorazioak.

– Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako neurrien aplikazioa.

*11. artikulua.–* Berariaz Arte-batxilergoarenak diren aukerako jakintzagaiak eranskinean jasota daudenak dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Ikastetxeen Zuzendaritzari, Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzari eta Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari baimena ematen zaie, dagozkien eskuduntzetan, agindu hau interpretatu, aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko urtarrilaren 13a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## I. ERANSKINA

Berariaz Arte-batxilergoarenak diren aukerako jakintzagaiak:

– Estetika (1. maila)
– Natura eta Materialak (1. maila)
– Arteetarako informatika (2. maila)
– Pinturako arte-lantegia (2. maila)
– Eskulturako arte-lantegia (2. maila)

*Artículo 9.–* El artículo 24.4 queda redactado de la siguiente manera:

Los alumnos que no hayan obtenido valoración positiva en alguna materia tendrán derecho a una prueba en convocatoria extraordinaria que se realizará en el mes de junio, al menos veinte días naturales después de la sesión de evaluación final del curso.

*Artículo 10.–* El artículo 26.3, primer párrafo, queda redactado de la siguiente manera:

Además de la notificación de los resultados de la evaluación mediante la entrega del Libro de calificaciones una vez obtenido el título de bachiller, se entregará a los alumnos o sus representantes legales al final del periodo lectivo y en su caso después de la convocatoria extraordinaria un Informe de evaluación individualizado, de formato libre, que de forma expresa recoja al menos los siguientes aspectos:

– Apreciación sobre el grado de consecución de los objetivos de Bachillerato y de las materias cursadas.

– Apreciación sobre el grado de asimilación de los contenidos de las diferentes materias.

– Calificaciones parciales o valoraciones del aprendizaje.

– Aplicación, en su caso, de medidas de refuerzo educativo.

*Artículo 11.–* Las materias optativas específicas del Bachillerato de Artes son las que figuran en el Anexo.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza a las Direcciones de Centros Escolares, Innovación Educativa y Gestión de Personal a dictar, en el ámbito de sus respectivas competencias, cuantas disposiciones sean necesarias para la interpretación, aplicación y desarrollo de la presente Orden.

*Segunda.–* Esta Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2000.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## ANEXO I

Materias optativas específicas del Bachillerato de Artes:

– Estética (1.º)
– Naturaleza y Materiales (1.º)
– Informática para las Artes (2.º)
– Taller artístico de Pintura (2.º)
– Taller artístico de Escultura (2.º)

– Zeramikako arte-lantegia (2. maila)
– Liburugintzako arte-lantegia (2. maila)
– Argazkigintzako lantegia (2. maila)
– Kontserbazio- eta berriztapen-lantegia (2. maila)
– Errepresentazio-sistemak (2. maila)

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-272

AGINDUA, 1999ko abenduaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Arabako Lurralde Ordezkaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkariaren lanpostua aukerako izendapenaz betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Sail honetan Arabako Lurralde Ordezkaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkari lanpostua hutsik dagoenez, agindu honen eraskinean adierazten den lanpostua aukerako izendapenaz betetzeko deialdia egitea erabaki du sail honek, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.a) artikuluan (1989ko uztailaren 28ko EHAA) erabakitakoaren arabera eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman duelarik. Honako hauek dira deialdiaren

OINARRIAK

*Lehena.–* Agindu honen bitartez deitutako lanpostu honetara, ezarri zaizkion baldintzak betetzen dituzten funtzionarioek jo ahalko dute.

*Bigarrena.–* Interesdunak eskaera Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidaliko du eta, bertan, dagozkion datuak eta betetzen ari den lanpostua adierazi beharko ditu. Bestalde, eskaera aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango du, Agindu hau Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

*Hirugarrena.–* Izangaiak eskaerarekin batera curriculuma igorri behar du eta bertan honako hauek adieraziko dira:

– Taller artístico de Cerámica (2.º)
– Taller artístico del Libro (2.º)
– Taller de Fotografía (2.º)
– Taller de Conservación y Restauración (2.º)
– Sistemas de Representación (2.º)

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-272

ORDEN de 21 de diciembre de 1999, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Delegado Territorial en la Delegación Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Álava.

Siendo necesaria la provisión del puesto de Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Álava en este Departamento y conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.a) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Departamento acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de Libre Designación, del puesto de trabajo que se relaciona en la presente Orden.

BASES

*Primera.–* El puesto de trabajo que se convoca a través de la presente Orden podrá ser solicitado por el personal funcionario de carrera que reúna los requisitos exigidos para el desempeño del mismo.

*Segunda.–* Los interesados/as dirigirán sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y destino actual, a la Dirección de Servicios del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Tercera.–* Los aspirantes deberán acompañar a su escrito un curriculum vitae en el que harán constar: